



# ENTZUN!

URRIA-ABERRA • 56.20€ • 3€ MUSIKA ALDIZKARIA



## PETTI

Argia heldu da

U.K. BILL  
AUDIENCE  
GOVERNORS  
UDAKO JAIALDIK

ERREPORTAJEAK

ESKORBUTO

HC/PUNKA, 80KO

HAMARKADARI SO

NIRVANA BILBON

DUELA 15 URTE



ELKARRIZKETA EKSLUSIBOAK  
HERMANO DETROIT COBRAS



"ARGIA HELDU DA", ABESTEN ZUEN PETTIK ORAIN DELA URTEBETE INGURU RAFA RUEDA ETA TXUMA MURUGARREKIN GRABATUTAKO 'HAUXE' DISKON. EZ ZEN LELO HUTS BAT: BERE ITZULERA IRAGARTZEN ARI ZEN, GARAI ILUN BATEN AMAIERA ETA ILUSIOZKO BESTE BATEN HASIERA. BAIEZTAPENA 'ON' LAN BERRIAN TOPATU DEZAKEGU, BERE DISKORIK ARGITSUENA ETA OSATUENA, SOINUARI DAGOKIONEZ BADEREN. "AKATSAK EGITEAREN PODERIOZ NIGAN KONFIANTZA HANDIAGOA IZATEN IKASI DUT AZKEN URTEOTAN".

TESTUA JON ESKISABEL  
ARGAZKIAK LA MÁQUINA DE HUESOS  
+ www.hotsak.com



## PETTI PIZTU DA PIZTIA

( 41 )



### ONE BY ONE

**Argia ailegatu da:** *Hauxe* diskoan Xoria kantari izenpean grabatutako kantuaren bertsio folkia, izenburua aldatuta. Etapa berriaren iragarpena.

**Bakardadea ehizan:** batera erritmo finko baten gainean, gitarra elektrikoa eta biolinak airean eramandako country-rock kantu bizia, gau bateko larru gosea asetzeko min itsuari buruzkoa. Anje Duhaldek kolaboratu du ahotsean.

**Galdera trinkoak:** Sixty Sexersek bere egin lezakeen hard-rock kantua.

**Eman eta hartu:** beste country-rock kantu bat, erdi akustikoa erdi elektrikoa. Hitzak Joseanton Artzeren poema batekoak dira.

**Jakin:** diskoak biltzen dituen balizko singleetatik (*Bakardadea ehizan*, *Erran gabeko hitzak*...) hau izan da aukeratua diskoak ezagutzera emateko. Rafa Ruedak bigarren ahotza egin du folk-rock kantu honetan.

**Argitasuna:** Petti akustikoa, *Arrazoiak* diskoak, kantu ilunen egilea eta gitarra jotzaile trebea, oraingoan *fingerpicking* teknika erakutsiz.

**Xorieri mintzo zen:** Mixel Labegeriek idatzi eta Erramun Martikorenak herrikoituta-kantua bluesaren eremura eramatu du Petti. Emaizta, primerakoa da, bete-betean islatzen baitu kontaktzen den istorioak iradokitako giroa, Pettiaren interpretazio grynatsua lagun. Eneko Labegeriek ere musikatutako zuen aitaren poema, *Ortziken* diskoan (1976).

**Oasia:** soul balada, gospel koroak eta texmex akordeoia uztertzen dira kantu ibaropentsu honetan. Deserto zabalean ibilita ere oasiak nonahi baitira.

**Txomin lantziri kantua:** hau ere *Hauxe*-n agertzen zen, baina berriz grabatu du, are aldaera indartsuagoan, batez ere amaierako eztandan, eta epikotasuna nabarmentzen duten aire zeltikoez hornitua.



**Erran gabeko hitzak:** Pettiaren aurpegirik gozo eta melodikoena erakusten duen balada. Bihotza altxatzen duen melodia.

**Galdutakoak:** adiskidetasunaren gezurrari buruzko blues balada goibela. Xabier Montoiarenak dira hitzak.

**Hauskorrak:** diskotik diskora Nick Drakek Pettiengan izandako eragina ezkutatu joan bada ere, kantu akustiko hau folk abeslari ingelesarekin lotzen da. Xabier Montoiak koroak egin ditu. Eder ematen dio azkena diskoari.